

# KIROLAREN KUDEAKETA

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

**Lekua:** Ekonomia eta Enpresa Fakultatea  
(Gipuzkoa atala)

**Egutegia eta ordutegia:**  
2021 irailtik 2022ko irailera  
Ostiraletan 15:00tik 20:00ra eta larunbatetan 9etatik 14tara

**Izen ematea:**

<https://www.ehu.eus/eu/web/titulospropios/izena-emateko-prozedura>

Prezioa: 3.600 €

Kolaboratzaile:



**Harremanetarako eta informazio gehigarria:**

[master.gestiondeldeporte@ehu.eus](mailto:master.gestiondeldeporte@ehu.eus)

<https://www.ehu.eus/eu/web/enpresa-donostia/kirolaren-gestioa>

## AURKEZPENA

Titulu hau berezko master bat da. Berezko master eta graduondokoak unibertsitateak berak antolatzen dituen ikasketa espezializatuak dira, malgutasunez egokitzen direnak gizartearen eskaerara. Era berean, oso lagungarriak dira karrera profesionala bideratzeko nahiz karrera horri beste norabide bat emateko.

Kirolaren sektorea ekonomia eta enplegu hazkunde aurreikuspen handienetakoa duen alor profesional bat da. Faktore askoren eraginaren ondorioz, kirol kudeaketan espezializatutako profesional gero eta gehiago behar dira, berebiziko garrantzia duen jakintza adarra delako kirol industriaren egungo eta etorkizuneko errealitateak eraginkortasunez kudeatzeko orduan.

Ikasleek eskuratuko dituzten gaitasunak lan merkatuak eskatzen dituenak dira, kirolaren kudeaketan erantzukizun postuak arrakastaz betetzeko.

Horretarako, sektorean eta haren enplegarritasun nitxo nagusietan adituak diren irakasleen laguntza izango dugu: enpresa kudeatzaileak, administrazio publikoetako arduradunak, lehen mailako kirol taldeen kudeatzaileak, ekitaldi antolatzaileak... Den-dena kirol antolakuntzen kudeaketan diziplinarteko prestakuntza osoa bermatzeko.

## ZERGATIK AUKERATU TITULU HAU

- + Arlo honetako master bakarra da Euskal Herriko eta inguruetako prestakuntza eskaintzan.
- + Oinarri bikoitza: akademikoa (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatea) eta profesionala (Emtesport, kirol kudeaketan liderra den euskal enpresa).
- + Kirol kudeaketarako prestakuntza erakargarri eta beharrezkoa.
- + Berrikuntzan eta malgutasunean oinarritutako ikasketa plana, eta lehen mailako kanpoko profesionalak

## SARTZEKO PROFILA

Kirol sektoreko profesional graduatuak, kirol kudeaketaren arloko ezagutzak eta gaitasunak behar dituztenak beren lana garatu edo hobetzeko.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduatuak eta Gorputz Hezkuntza eta Kiroleko graduatuak.

Profil horiez gainera, kontuan izango dira ere beste era batekoak.

## IRTEERA PROFESIONALAK

Kirolari lotutako enpresen, klubuen, elkarten eta abarren zuzendaritza, administrazioa, kudeaketa eta antolakuntza.

## MODULU EGITURA

Masterraren 60 kredituak zatika edo moduluka egin daitezke.

- + Aditu tituluak (E1, E2 eta E3)
- + Unibertsitate espezializazio tituluak (EU1 eta EU2)
- + Eta Master Amaierako Lana (TFM) eginez:

- (E1)** Kirol Erakundeen Kudeaketan Aditu **19 kreditu / 1.140€**
- (E2)** Kirol Erakundeen Kudeaketan Aditu, Zuzendaritza eta Kudeaketa eginkizunetan **16 kreditu / 960€**
- (E3)** Kirol Erakundeen Kudeaketan Aditu, Berrikuntza, Teknologia Berrien eta Ekitaldi Handien eremuan **17 kreditu / 1.020€**
- (EU2)** Unibertsitate Espezializazioa Zuzendaritza eta Kudeaketa eginkizunetan **F1 eta E2 eginez lortzen da**
- (EU3)** Unibertsitate Espezializazioa Berrikuntza, Teknologia Berrien eta Ekitaldi Handien eremuan **E1 eta E3 eginez lortzen da**

**Master= E1+E2+E3+TFM : 60 kred / 3.600€**

